

Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko GIDA

Ondoko mapa edo eskemak **gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak** biltzen ditu. Faktore hauek hiru mailatan ordenatuta daude, euren eragin esparruaren arabera:

NORBANAKOIA: Maila indibiduala. Faktore hauek hiztun bakoitzaren erabileran norabide eta indar ezberdinez eragiten dute.

INGURUNE HURBILA: Maila mikro-soziala edo hiztun komunitatearen harreman sareak; ingurune hurbileko talde bakoitzari norabide eta intentsitate ezberdinarekin eragiten diote (koadrilaren arabera, familiaren arabera, auzoaren arabera, ikaskide-taldearen arabera,...).

GIZARTEA: Maila makro-soziala edo gizartearen egitura. Gizarte bateko hiztun guztien erabilera zentzu berean baldintzatzen duten faktoreak dira.

Erabileran hamaika faktorek eragiten dutela ikus daiteke eskeman. Hala ere, faktore bakoitzaren eragin maila edo garrantzia ez da zehazten, gazte bakoitzaren edo gazte-talde bakoitzaren kasuan garrantzi hau aldakorra izan daitekeelako.

